

## **IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA GARRAIOAREN HIRIA (3. ETA 4. FASEAK) ETA ELORZKO INDUSTRIALDEA HORNITZEKO PROIEKTUA. DESJABETZEA**

Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak, 2021eko martxoaren 29an egin zuen saioan, akordio hau hartu zuen.

“Garraioaren Hiria (3. eta 4. faseak) eta Elorzko industrialdea hornitzea” lanaren xedea da Garraioaren Hiriko 3. eta 4. faseak eta Noain-Elortzibar udalerrian eraiki nahi den 85 hektareako industrialdea hornitzeko beharrezkoak diren instalazioak eraikitzea.

Instalazio horiek, hain zuzen, hauek dira: D400 diametroko xurgatze- eta bulkatze-hodi bat egitea (hodi horren 1.337 lursail partikularretatik igaroko lirateke), ponpaketa-instalazio batzuk, Garraioaren Hiriko eremu lorategidun batean eraikiko liratekeenak, eta 4.000 m<sup>3</sup>-ko biltegi erregulatzaila berri bat (bertara iristeko bidea ere bai). 8.554 m<sup>2</sup>-ko azalera behar dute denen artean.

2021eko otsailaren 23an, Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietateko Administrazio Kontseiluak “GARRAIOAREN HIRIA (3. ETA 4. FASEAK) ETA ELORZKO INDUSTRIALDEA HORNITZEA” proiektua onartu zuen, eta administrazioari jakinarazitako aurrekontua 4.351.437,92 euro da (%21eko BEZa barne hartuta).

Kontuan hartuta, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 10. artikulua eta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 215.2 artikulua arabera, Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak obren planei eta tokiko zerbitzuei dagozkien obren proiektuak onartu behar dituela, izan ere, onartzeak inplizitu baitakar erabilera publikokotzat deklaratzeko eta haietan jasotako ondasunak okupatu behar izatea, nahitaezko desjabetzearen eraginetarako.

Obra horiek egiteko beharrezkoak diren lursailak desjabetzea beharrezkoa izanik, eta aintzat hartuta, Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 47.4 eta 29. artikuluen, Toki – araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 4.1.d) artikulua eta Iruñerriko Mankomunitatearen Estatutuen 4. artikulua arabera, erakunde honek desjabetze-ahalmena gauzatu ahal duela, egokia da desjabetzeko espedientea hastea. Horrenbestez,

### **HITZARTU DA:**

**1.- “GARRAIOAREN HIRIA (3. ETA 4. FASEAK) ETA ELORZKO INDUSTRIALDEA HORNITZEA” obraren proiektua onartzea, desjabetzeko espedientea hasia eta proiektu horrek ukitzen dituen ondasun eta eskubideen zerrenda hasiera batean onartzea. Onuraduna “Iruñerriko Zerbitzuak, SA” izango da.**

**2.- Proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen onura publikoa eta okupatu beharra AITORTZEA eta deklaratzeko, onarpenari lotuta baitaude.**

**3.- Proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean EDUKITZEA hamabost egun baliodunean, interesdunek denbora horretan egokiak iruditzen zaizkien ohar edo alegazio guztiak eta argitaratutako zerrendako okerrak zuzentzeko behar diren datuak ekar ditzaten, idatziz. Idatzia Iruñerriko Mankomunitatearen egoitzara (Chinchilla Jeneralaren kalea, 7, 31002, Iruña, Nafarroa) eta Noaingo udaletxera (Elortzibar) bidali ahal izango dute. Egoitza horietan, hain zuzen, proiektuaren eta lursail-planoen kopia bat edukiko dute eskura.**

**4.- Akordio hau KALERATZEA, ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Foru Komunitateko egunkari batean, eta Iruñerriko Mankomunitateko eta Noaingo udaletxeko (Elortzibar) iragarki-oholetan.**

**5.- Ebazpen hau ukituei JAKINARAZTEA, erabaki hau inpugnatzerik ez dagoela ohartaraziz, administrazio-bidea amaitzen ez duen tramiteko egintza baita.**

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an. Lehendakaria, David Campión Ventura.

## UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

### GARRAIOAREN HIRIA (3. ETA 4. FASEAK) ETA ELORZKO INDUSTRIALDEA HORNITZEA

FINKA	TITULARRA	UKIPENAK					KATASTROKO DATUAK					
		AKUEDUKTU ZORTASUNA M.L.	ZORTASUN EZARPENA M <sup>2</sup>	OKUPAZIOA ERREGISTROAK		BEHIN BETIKO OKUPAZIOAK M <sup>2</sup>	BEHIN-BEHINEKO OKUPAZIOAK M <sup>2</sup>	UDALERRIA	POL. ZK.	LURZ. ZK.	AZALERA OSOA	IZAERA
				M <sup>2</sup>	ZK.							
NO-01	Garraioaren Hiriko 1. eta 2. faseetako jabeen komunitatea	50	300		1			Noain (Elortzibar)	4	227	109070,86	Lurzorua
NO-02	Astiz Eslava Jesús Matías Astiz Eslava José Luis	7	42				140	Noain (Elortzibar)	4	94	3318,06	Lehorreko alorra
NO-03	NASUVINSA	75	450				1.500	Noain (Elortzibar)	4	314	14239,17	Lehorreko alorra
NO-04	Garraioaren Hiriko 1. eta 2. faseetako jabeen komunitatea	1078	6468		4	562 Ponpaketa		Noain (Elortzibar)	4	758	97425,61	Lurzorua
NO-05	Garraioaren Hiriko 1. eta 2. faseetako jabeen komunitatea	362	2172		1			Noain (Elortzibar)	4	489	61515,7	Lurzorua
NO-06	NASUVINSA	302	1812		1			Noain (Elortzibar)	5	115	69724,88	Lurzorua
NO-07	NASUVINSA	256	1536		2			Noain (Elortzibar)	13	94	35446,23	Lurzorua
NO-08	Sarasate Equiza Jesús María Sarasate Equiza Rebeca	165	990		3 elkarrekin		3.300	Noain (Elortzibar)	13	137	64601,02	Lehorreko alorra
NO-09	NAFARROAKO UBIDEA Nafarroako Foru Komunitatea	60	360				1.200	Noain (Elortzibar)	13	136	180105,86	Lehorreko alorra
NO-10	Sarasate Equiza Jesús María Sarasate Equiza Rebeca	374	2244		1		7.480	Noain (Elortzibar)	13	135	106766,28	Lehorreko alorra
NO-11	Izco Laquidain José Ramón	313	1878		1		6.260	Noain (Elortzibar)	13	114	101111,82	Lehorreko alorra
NO-12	Nafarroako Foru Komunitatea (NA-234 Arrizabalaga Urrotz Hiria)	13	78				260	Noain (Elortzibar)	13	22	9788,92	Elkorra
NO-13	Sarasate Equiza Jesús María Sarasate Equiza Rebeca	250	1500		2		5.000	Noain (Elortzibar)	13	116	117074,38	Lehorreko alorra
NO-14	López Sarasate Benito	93	558		1		1.860	Noain (Elortzibar)	13	115	17639,95	Lehorreko alorra
NO-15	Elizari Redín Begoña Elizari Redín Jesús	0	0			8554 Biltegia eta bertarako bidea	0	Noain (Elortzibar)	12	109		Lehorreko alorra